

## Hitzaurrea

2008. urtean, UPV/EHUko Letren Fakultateak ekimen bat jarri zuen abian: *Mundu bat, begirada anitz* aldizkaria; alegia, irakurleentzako bere programa handinahia osatzeko beste tresna bat. Irakasle irakurleek irakasten dituzten eta eskolaz kanpoko jarduerak gauzatzeko darabiltzaten hizkuntzei eta kulturei buruzko ezagutza sortzea da, hain zuzen, aldizkariaren helburu nagusia, eta ezagutza hori, lehenik eta behin, ikasleen eskura jartzea; ondoren, berriz, beste hizkuntzei begirako interesa duten pertsona guztien eskura. Azken batean, *gure Mundu anitzaren beste begirada batzuk* finkatzea izan du beti xede. Azken ale honekin dagoeneko lau argitaratu ditugu. Horrek esan nahi du, apurka-apurka, ekimen hau egonkortzen ari dela. Bere modura, kulturartekotasuna sustatzen duen ekimena da; esan nahi baita, kulturak integratzeko eta elkarrekin bizitzeko modua bultzatzen du, Italiako, Galiziako, Arabiako, Japoniako, Alemaniako, Greziako eta Errusiako ezaugarrien *eza-gutzaren* bitartez.

Horrela bada, Fakultateko ikasleek musika napolitarrari buruzko *Pas-sione* (2010; zuzendaria: John Turturro) dokumentalaren azpтитuluak ezartzeko jardueran bizi izandako esperientzia azalduko digu Lucia Barbato irakasleak. Zeinab Shawkysayed irakasleak, berriz, apaindura-epigrafia arabiarraren bitartez, Erdi Aroko arte espainiarra aztertuko du. Chisako Miura irakasleak On Kixoteren ezkutari leial Sancho Panzaren irudiari buruzko azterlana aurkeztuko digu. Débora Álvarez irakasleak, aldiz, Lois Pereiro poetaren irudi eta obrara hurbiltzeko material didaktikoa eskainiko digu. Poeta horixe da, hain zuzen, 2011. urteko *Letra Galiziarren Eguna* ospatzeko aukeratutako egilea. Julia Brade irakasleak, ostera, Fakultateko ikasleek gauzatutako ekimen interesgarri baten emaitzaren berri emango

digu: zehazki, Gasteizko bigarren hezkuntzako ikastetxeetan alemanez hitz egiten duten herrialdeetako hizkuntza eta kulturari buruzko tailer sorta bat gauzatu zuten. Thiresia Chalavazi irakasleak, ordea, belaunaldiz belaunaldi ahoz transmititutako eta greziarren egunerokotasuneko osagaia den herrikantu neogreziarra landuko du. Natalia Shulha irakasleak, bestalde, *kolore multzo nazionala* aztertuko du, José Hernández «Martín Fierro» poetaren lanaren errusierazko itzulpenak abiaburu hartuta. Miki Nishu irakasleak bigarren hizkuntza gisa japonieraren irakaskuntzak dituen zailtasunei buruzko gogoeta egingo digu. Eta, azkenik, Natalia Petrovskaya irakasleak, errusiera alde batera utzi gabe, «B» preposizioako akusatiboaren eta preposiziorik gabearen erabilera ulertzeko eta mendean hartzeko ikasleek dituzten zailtasunak azalduko ditu.

Azken batean, *Mundu bat, begirada anitz* lanaren ale honen helburua askotarikoak garela ispiatzea da, eta baita zertara jo behar dugun zehaztea ere: askotarikotasuna errespetatzera eta hartaz gozatzera, alegia. Gainerakoak eta beste kultura batzuk *ezagutzeak*, eta soilik horrek, lagunduko digu elkar ulertzen, eta batik bat pertsona eta gizarte gisa hazten.

IÑAKI BAZÁN

UPV/EHUko Letren Fakultateko dekanoa